

INFORMAZIO GIDA

EEE-REN ENERGIA BERRIZTAGARRIEN BIDEZ AUTOKONTSUMORAKO ENERGIA ELEKTRIKOA SORTZEKO ETA KONTSUMO TERMIKOAK ELEKTRIFIKATZEKO 2025-2026RAKO LAGUNTZA-PROGRAMAREN DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK

*Energia berriztagarren erkidego baten edo herritarren
energia-erkidego baten eskatzaile profilarentzako gida*

Nork egin du gida hau?

Gida hau egin dute Euskal Autonomia Erkidegoko energiaren eraldaketarako bulegoen (EEB/EKB) artean, zehazki hauen artean: [GEEB/EKB Gipuzkoako Energiaren Eraldaketarako Bulegoa](#), [Energiaren Puntua Energia-komunitateen sustapen bulegoa \(Debagoiena\)](#), [Arabako EEB/EKB](#), [Gasteizko EEB/EKB](#) eta [CERES EEB/EKB](#) (Bizkaian jarduten da). EEB/EKBak dira aholkularitza- eta laguntza-bulegoak, eta lan egiten dute herritarrekin, elkarteekin, ETEekin, autonomoekin, toki-erakundeekin (txikiak barne) eta tokiko energia-komunitateak sortzeko interesa duten erakundeekin.

Nori zuzenduta dago?

Gida hau zuzentzen zaie energia berriztagarriekin **autokontsumo energetikoko instalazio bat** martxan jarri edo **kontsumo termikoak** (berokuntza, ur bero sanitarioa, etab.) **iturri berriztagarrien bidez elektrifikatuko** dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko **pertsona, erakunde eta administrazio publiko** guztiei.

Kalkulu-prozesuak esplizituki zentratzen dira energia berriztagarrien erkidego baten edo herritarren energia-erkidego baten profiletan.

Gidaren helburua

Gida honen bidez ezagutarazi nahi dugu energia berriztagarrien bidez autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko eta kontsumo termikoak elektrifikatzeko *Energiaren Euskal Erakundearen* (EEE) 2025eko laguntza programari buruzko informaziorik garrantzitsuenak.

Dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak biltzen dituen dokumentu ofiziala 2025eko maiatzaren 8an argitaratu da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Gida honen xede hartzaileak dira **energia berriztagarrien erkidego bateko edo herritarren energia-erkidego bateko** eskatzaileak, zehazki, laguntzaren kalkuluari buruzko atalari dagokionez.

Gidaren edukiak

1. Laguntza-programaren aurkezpena	4
2. Laguntzaren epeak	4
3. Diruz lagundu daitezkeen jarduketak gauzatzeko epea	4
4. Diruz lagundu daitezkeen jarduketak eta gastuak	4
5. Kanpoan utzitako jarduerak eta diruz lagundu ezin diren gastuak	6
6. Entitate onuradunak	7
7. Aurrekontu-zuzkidura eta laguntzaren zenbatekoa	8
7.1. Iturri berriztagarriekin autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko instalazioetan diruz lagundu daitezkeen kostuak	8
7.1.1. Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzen dituen jarduera ekonomikorik egiten EZ duten pertsonentzako laguntzaren kalkulua	8
7.1.2. Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten duten onuradunentzako laguntzaren kalkulua	10
7.1.3. Tipologiako merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzen dituen jarduera ekonomikorik egiten EZ duten eta izaera publikoa duten onuradunentzako laguntzaren kalkulua	12
7.2. Energia-iturri berriztagarrien bidez kontsumo termikoak elektrifikatzeko laguntzaren zenbatekoa.	14
7.2.1. Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzen dituen jarduera ekonomikorik egiten EZ duten pertsonentzako laguntzaren kalkulua	14
7.2.2. Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten duten onuradunentzako laguntzaren kalkulua	15
7.2.3. Tipologiako merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzen dituen jarduera ekonomikorik egiten ez duten eta izaera publikoa duten onuradunentzako laguntzaren kalkulua	16
8. Aurkeztu beharreko dokumentazioa	17
8.1. Eskaerak aurkezteko edo izapideak egiteko aholku baliagarriak:	19
9. Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna	19

1. Laguntza-programaren aurkezpena

Ebazpena. 2025eko apirilaren 11koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, energia berriztagarrien bidez autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko eta kontsumo termikoak elektrifikatzeko Euskal Autonomia Erkidegorako 2025eko laguntza-programaren oinarri arautzaileak onartzen, deialdia egiten eta argitaratzen dituena.

Dirulaguntzak emateko prozedura **ondoz ondoko konkurrentzia-araubidean** egingo da, eta eskabideak aurkeztutako hurrenkeraren arabera ebaluatuko dira, kreditu erabilgarria agortu arte.

Informazio-oharra: laguntza-programa berria bi alditan aurkeztuko da. Lehenengo deialdia 2025-2026 urteetarako eta bigarrena 2027-2028 urteetarako. Deialdi bakoitzak 80 milioi euroko aurrekontua izango du guztira, beste era batera esanda,; datozen 4 urteetan EEEK 160 milioi euro eskainiko ditu dirulaguntzetarako, aurrerago deskribatuko diren jardueretarako.

2. Laguntzaren epeak

Eskaera egiteko epearen hasiera: EHAAn argitaratu eta hurrengo egun balioduna (2025eko maiatzaren 8an argitaratua).

Epearen amaiera: **2026ko irailaren 30era** arte edo **aurrekontua agortu arte** (aurkezpen-ordenaren arabera hartuko dira kontuan).

3. Diruz lagundu daitezkeen jarduketak gauzatzeko epea

Jarduketak ezin izan dira eskabidea egin aurretik hasi.

Inbertsioa gauzatzeko eta justifikatzeko gehieneko epea da 12 hilabetekoa, emakida jakinarazten denetik aurrera, eta, gehienez ere, 2027ko abenduaren 30era arte.

4. Diruz lagundu daitezkeen jarduketak eta gastuak

1. Ierroa. Energia berriztagarriekin (fotovoltaikoak edo eolikoak) **autokontsumorako elektrizitatea** sortzeko instalazioak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak:

- Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoak eta eolikoak (banakakoak, kolektiboak edo isolatuak).
- Instalazioaren barne-sarean integratutako biltegiatze-sistemak (bateriak).
- Nahitaezko monitorizazio energetikoa (ekoizpena eta kontsumoa).

Baldintza bereziak:

- Lotutako urteko kontsumoak urteko ekoizpenaren $\geq$ % 80 izan behar du, instalazio isolatuetan izan ezik.

- Biltegitratzeko diruz lagun daitekeen gehieneko ratioa: 5 kWh instalatutako kW-ko.
- Bateriek beren energiaren % 75, gutxienez, sorkuntza-instalaziotik xurgatu behar dute.
- Ez dira diruz lagunduko berun-azidozko bateriak.

2. Ierroa. Bero-ponpa berriztagarriekin (aeroterminia, geoterminia edo hidraterminia) **kontsumo termikoak elektrifikatzeko** (etxeke ur beroa eta klimatizazioa) instalazioak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak:

- Bero-ponpa aeroterminiko, geoterminiko (zundaketa dutenak) edo hidraterminikoen instalazioak.
- Urtaroko batez besteko errendimendua (SPF) 2,5 baino handiagoa bada bakarrik emango dira dirulaguntzak.
- Sistema hidronikoak (uretan oinarritutakoak) baino ez dira onartuko.
- Klimatizaziorako (berokuntza eta hoztea) eta ur bero sanitarioaren ekoizpenerako aplikatu ahal izango dira.
- Eraikuntza berriko eraikinetarako: energia berriztagarrien erabilera eskusiboa eskatzen da (hibridaziorik gabe).

Diruz lagundu daitezkeen gastu komunak (lerroen arabera):

Gastu orok **lotura zuzena eduki eta behar-beharrezkoa izan** behar du diruz lagundutako jarduketara gauzatzeko. Gainera, gastu-konpromiso guztiek (aurrekontuak, fakturak, kontratuak, ordainketak) **eskaera aurkeztu ondorengo data izan behar dute**.

- Ekipo nagusiak (panelak, inbertsoreak, bateriak, bero-ponpak, etab.).
- Obrak eta instalazioak gauzatzeara.
- Instalazioari lotutako ekipa elektromekanikoak, kontrolekoak eta osagarriak.
- Konexio-punturaino lotutako azpiegitura elektrikoa.
- Monitorizazio-sistemak (nahitaezkoak).
- Lotutako obra zibilak: estalkia indartzea edo ordeztzea, amiantoaren kentzea, zangak, kanalizazioak, eraikuntza teknikoak, barne-sarbideak, plataformak, ingurumen-neurri zuzentzaileak, etab.

Kostuak hautagarri gisa baloratuko dira soilik panelen zati proportzionalean.

- Proiektua edo memoria teknikoa idaztea.
- Zuzendaritza teknikoa.
- Segurtasun eta osasun koordinazioa.
- Amiantoaren ezabatzea (fotovoltaikako proiektuetan).

- Jarduerari lotutako hondakinen kudeaketa.
- Fotovoltaikarako markesinak (panelen euskarri gisa erabiltzen badira).
- Beharrezko gisa justifikatutako beste gastu lagungarri batzuk.

Obra zibila diruz laguntzeko baldintzak:

Eraikuntza- eta eraispen-hondakin arriskugabeen gutxienez %70 (pisan) birziklatu edo balorizatu behar dira (EHZ 17 05 04 kodekoak izan ezik).

Eraispenik eginez gero, modu selektiboan egin beharko da.

Ekipoak joango diren azalerak egokitzeko behar diren lanak ezingo dira izan laguntzaren xede nagusiaren xedeari dagozkionak baino handiagoak (energia sortzeko instalazioak edo ekipoak).

5. Kanpoan utzitako jarduerak eta diruz lagundu ezin diren gastuak

Honako gastu eta jarduketak hauek ez dira diruz lagunduko, **proiektuarekin lotuta egon arren:**

- Eskatzailearen berezko gastuak (langileak, funtzionamendua, kostu orokorrak edo egiturakoak).
- Eraikuntzako Kode Teknikoak (EKT) nahitaezko gisa ezarritako eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioak, eskatutakotik gorako handitzeak izan ezik.
- Ingurumen-inpaktuaren azterketak eta proiektu teknikoei oniritzia ematea.
- Tasak, lizentziak, baimenak, abalak, fidantzak eta zergak (BEZ berreskurazina, etab.).
- Finantza-kostuak: interesak, banku-gastuak, komisioak, aseguruak, etab.
- Administrazio-gastuak, baita baimenak izapidetzearekin lotuta badaude ere.
- Lurrak erosteko edo errentan hartzeko kostuak.
- Obraren zaintza eta segurtasuna, martxan jarri arte.
- Sortutako energia ebakuatzeari zuzenean lotuta ez dauden linea elektrikoak.
- Proiektuaren eremutik kanpo dauden errepide publiko edo bideetako sarbideak.
- Hotz industrialeko ekipoak eta bero-ponpak, baldin eta:
 - Gutxieneko errendimendua lortzen ez badute (SPF > 2,5).
 - Ziurtatuta ez badaude.
 - Hezetasuna kentzeko unitate gisa funtzionatzen badute.

- Eraikin berrietako instalazio hibridoak, berriztagarriak iturri ez berriztaezinekin konbinatzen dituztenak.
- Lurrazpiarekin energia-trukerako zundaketarik gabeko instalazio geotermikoak.
- Berun-azidozko bateriak.

6. Entitate onuradunak

Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) 2025eko laguntza-programaren onuradun izan daitezke pertsona fisiko eta juridiko, talde eta erakunde publiko hauek, betiere oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte:

- Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten ez duten **pertsona fisikoak**.

- Merkatuan ondasunak edo zerbitzuak eskaintzeko **jarduera ekonomikoren bat egiten duten pertsona fisikoak edo juridikoak**.

- **Partzuergoak, elkarteak edo taldeak**, izaera juridikoa dutenak eta ez dutenak, bestek beste:

- Jabetza horizontalari buruko uztailaren 21eko 49/1960 Legearen arabera araututako egoitza sektoreko **jabekideen erkidegoak**.

- **Energia berriztagarrien erkidegoak eta herritarren energia-erkidegoak**, energia berriztagarriei buruzko (EB) 2018/2001 Zuzentarauan, elektrizitatearen barne merkatuari buruzko (EB) 2019/944 Zuzentarauan eta 23/2020 Errege Lege Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera.

** Jarduera ekonomikorik egiten ez dutela jotzeko, kideak jarduera ekonomikorik gabeko pertsona fisikoak edo bizitegi-jabeen erkidegoak izan beharko dira.*

- Toki-erakundeak: kontzejuak, ermandadeak, administrazio-batzarrak, udalerriak, mankomunitateak, kuadrillak eta EAEko beste toki-erakunde batzuk. Baita hauek ere:

- Erakunde horien mendeko erakunde publikoak.

- Udal enpresa publikoak (zuzeneko zein zeharkako partaidetza publikoa %50ekoa baino gehiagokoa).

- Tokiko fundazio publikoak edo nagusiki udal-ordezkariek osatutakoak.

- Nagusiki kapital publikoko partaidetza duten partzuergoak eta bestelako erakunde instrumentalak.

- **Administrazio autonomikoak eta foru-administrazioak**, hau da, EAEko Administrazio Orokorra, haren mendeko organismoak eta erakundeak; eta **foru-aldundiak** eta haien erakunde elkartuak (fundazioak, sozietate publikoak, etab.), %50etik gorako partaidetza publikoa dutenak.

- **Portu-agintaritzak**, betiere EAEn kokatuta badaude.

Hemendik aurrera, gida honetan azalduko dira energia berriztagarrien komunitatearen edo herritarren energia-erkidegoen profilarekin laguntza eskatzen dutenentzako baldintzak.

7. Aurrekontu-zuzkidura eta laguntzaren zenbatekoa

Aurrekontu-zuzkidura, guztira:

80 milioi euro, honela banatuta:

- 60.000.000 € autokontsumorako elektrizitatea sortzeko instalazioetarako.
- 20.000.000 € kontsumo termikoak elektrifikatzeko instalazioetarako (etxeke ur beroa eta klimatizazioa).

Aurrekontua %20 handitu ahal izango da eskuragarritasunik baldin badago eta lerroren batean eskari handia badago.

Laguntzaren zenbatekoa eta intentsitatea:

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira, eta zenbatekoa jarduketa motaren, onuradun motaren eta instalatutako potentziaren edo gaitasunaren arabera da.

Arestian aipatu den bezala, kalkulu hori **energia berriztagarrien komunitate bateko edo herritarren energia-komunitate bateko eskatzailearen** profilaren arabera egingo da.

7.1. Iturri berriztagarriekin autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko instalazioetan diruz lagundu daitezkeen kostuak

7.1.1. Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzen dituen jarduera ekonomikorik egiten EZ duten pertsonentzako laguntzaren kalkulua

Kalkulu-metodo hau jarraitu behar da energia berriztagarrien erkidegoetan edo herritarren energia-erkidegoetan, entitate juridiko horretako kideak soilik bizitokirako etxebizitza baten jabeak direnean (turismoko alokairurako ez erabiltzea).

Emango den laguntza, guztira, sorkuntza-instalaziorako laguntzaren eta, hala badagokio, biltegitratze-instalaziorako laguntzaren batura izango da.

Sorkuntza-instalaziorako laguntzak zenbateko finko unitario edo «modulu» gisa emango dira, eta diruz lagundu daitekeen kostu osoa estaliko dute, gehienez ere.

$$\text{Sorkuntzarako laguntza} = \text{Sorkuntza-modulua} \times P_s$$

P_s da benetan instalatutako sorkuntza-instalazioaren potentzia kilowattetan (kW). Puntako kilowattak (kWp) instalazio fotovoltaikoen kasuan.

Nolanahi ere, sorkuntzarako laguntzak **ezin izango du gainditu benetan egindako jarduketaren kostu hautagarria**, behar bezala justifikatuta.

Instalazioa potentzia-tarteen arabera	Gehieneko zenbatekoa modulu kolektibo bakoitzeko (€/kW)
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa $P \leq 10$ kW	710
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa $P > 10$ kW eta $P \leq 100$ kW	535
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa $P > 100$ kW eta $P \leq 1.000$ kW	420
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa $P > 1.000$ kW	355
Sorkuntzako instalazio eolikoa $P \leq 20$ kW	3.350
Sorkuntzako instalazio eolikoa $P > 20$ kW eta 500 kW arte	2.250
Sorkuntzako instalazio eolikoa $P > 500$ kW	775

Modulu horiek handitu egingo dira fotovoltaikoa instalatzen den estalkitik amiantoa kentzen bada edo aparkalekuen estalki gisa balio duten markesina fotovoltaikoak instalatzen badira (bizikletak ere ibilgailutzat hartzen dira).

Dirulaguntza jaso ahal izateko, beharrezkoa da **sorkuntzaren guztizko potentziaren % 80, gutxienez, amiantoa kendu den azaleraren gainean egotea**, eta markesinen kasuan, sorkuntzaren guztizko potentziaren %80 markesina fotovoltaikoen gainean jartzea.

Diruz lagundu daitezkeen jarduketa osagarriak	Sorkuntza modulu gehigarria (€/kW) (kasuaren arabera)
Eguzki-energia fotovoltaikoko proiektuetarako estalkietan amiantoa ezabatzea	$P \leq 10$ kW $\rightarrow$ 200 €/kW 10 kW $< P \leq 100$ kW $\rightarrow$ 160 €/kW 100 kW $< P \leq 1.000$ kW $\rightarrow$ 110 €/kW $P > 1.000$ kW $\rightarrow$ 100 €/kW
Ibilgailuentzako (bizikletak, autoak...) aparkalekuen estalki gisa balio duten markesinak instalatzea eguzki energia fotovoltaikoko proiektuetarako.	$P \leq 10$ kW $\rightarrow$ 400 €/kW 10 kW $< P \leq 100$ kW $\rightarrow$ 350€/kW 100 kW $< P \leq 1.000$ kW $\rightarrow$ 300€/kW $P > 1.000$ kW $\rightarrow$ 250€/kW

Biltegiatze-instalazioetarako laguntzak zenbateko finko unitario edo «modulu» gisa emango dira, eta diruz lagundu daitezkeen kostu osoa estaliko dute, gehienez ere.

$$\text{Biltegitratzeko laguntza} = \text{Biltegitratze-modulua} \times \text{Kap}$$

Kap da biltegitratze-instalazioaren edukiera nominala, orduko kilowattetan (kWh).

Nolanahi ere, biltegitratzeko laguntzak **ezingo du gaintitu benetan egindako jarduketaren biltegitratze-kostu hautagarria**, behar bezala justifikatuta.

Jarduketa bakoitzerako laguntza zehazten duten biltegitratze-moduluak honako hauek dira:

Instalazioa gaitasun-tarteen arabera	Laguntza-modulua (€/kWh)
Biltegitratzeko instalazioa Kap ≤ 10 kWh	490
Biltegitratzeko instalazioa Kap > 10 kWh eta Kap ≤ 100 kWh	350
Biltegitratzeko instalazioa Kap > 100 kWh eta Kap ≤ 5.000 kWh	245
Biltegitratzeko instalazioa Kap > 5.000 kWh	140

Biltegitratzerako diruz lagundu daitekeen gehieneko zenbatekoa izango da 5 kWh/kW-ri dagokiona. Aipatutako gaitasuna baino handiagoa duen biltegitratze-instalazioa baimentzen da, baina ez da dirulaguntzarik emango ratio hori gaintitzen duen biltegitratze-zatirako.

7.1.2. Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten duten onuradunentzako laguntzaren kalkulua

Kalkulu-metodo hau jarraitu behar dute energia berriztagarrien erkidegoek edo herriarren energia-erkidegoek, baldin eta **gutxienez** entitate juridikoko **kide batek jarduera ekonomikoren bat** egiten badu.

Kalkulatzeko formula 1.1 ataleko bera da.

Diruz lagundu daitekeen gehieneko kostua eta diruz lagundu daitekeen kostuaren gaineko laguntza-ehunekoa zehazten dituzten moduluak honako hauek dira, enpresaren tamainaren arabera:

Instalazioa potentzia-tarteen arabera	Diruz lagundu daitekeen gehieneko kostua (€/kW)	Enpresa handien laguntza (%)	Enpresa ertainen laguntza (%)	Enpresa txikien laguntza (%)
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa $P \leq 10$ kW	1.188	%25	%30	%45
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa $P > 10$ kW eta $P \leq 100$ kW	910	%25	%30	%45
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa $P > 100$ kW eta $P \leq 1.000$ kW	749	%25	%30	%45
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa $P > 1.000$ kW	460	% 25	%30	%45
Sorkuntzako instalazio eolikoa $P \leq 20$ kW	4.723	%30	%40	%50
Sorkuntzako instalazio eolikoa $P > 20$ kW eta 500 kW arte	3.072	%30	%40	%50
Sorkuntzako instalazio eolikoa $P > 500$ kW	1.070	%30	%40	%50

Aurreko kalkuluaren atalean bezala (1.1), amiantoa kentzea edo ibilgailuak aparkatzeko pergolak jartzea ere diruz lagundu daitekeen zenbateko gehigarria izango da, taula honen arabera:

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak osagarriak	Diruz lagundu daitekeen gehieneko kostu gehigarria (€/kW)
Eguzki-energia fotovoltaikoko proiektuetarako estalkietan amiantoa ezabatzea	$P \leq 10$ kW $\rightarrow$ 700€/kW 10 kW $< P \leq 100$ kW $\rightarrow$ 660€/kW 100 kW $< P \leq 1.000$ kW $\rightarrow$ 450 €/kW $P > 1.000$ kW $\rightarrow$ 400 €/kW
Ibilgailuentzako (bizikletak, autoak...) aparkalekuen estalki gisa balio duten markesinak instalatzea eguzki energia fotovoltaikoko proiektuetarako.	$P \leq 10$ kW $\rightarrow$ 500 €/kW 10 kW $< P \leq 100$ kW $\rightarrow$ 400 €/kW 100 kW $< P \leq 1.000$ kW $\rightarrow$ 300 €/kW $P > 1.000$ kW $\rightarrow$ 250 €/kW

Laguntza kalkulatzeko, kontuan hartuko da kalkulaturako kostu hautagarriaren eta diruz lagundu daitekeen gehieneko kostuaren artean diruz lagundu daitekeen gutxieneko kostua.

Kostu hautagarri kalkulatu I. eranskineko B.1 atalean definitutako kostu diruz lagungarri guztien batura da, betiere sorkuntza-instalazioari dagozkionak badira.

Biltegitratzeko instalazioetarako laguntzak honela emango dira: diruz lagundu daitekeen biltegitratze-kostua bider jarduketa mota bakoitzerako ezarritako laguntza-ehunekoa. Diruz lagun daitekeen gehieneko kostu bat ezartzen da, biltegitratze-ahalmen nominalaren arabera.

Instalazioa gaitasun-tarteen arabera	Diruz lagundu daitekeen gehieneko kostua (€/kW)	Enpresa handien laguntza (%)	Enpresa ertainen laguntza (%)	Enpresa txikien laguntza (%)
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa $P \leq 10$ kW	700	%45	%55	%65
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa $P > 10$ kW eta $P \leq 100$ kW	500	%45	%55	%65
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa $P > 100$ kW eta $P \leq 1.000$ kW	749	%45	%55	%65
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa $P > 1.000$ kW	460	%45	%55	%65

Diruz lagundu daitekeen gehieneko ratioa izango da 5 kWh/kW-koa. Aipatutako gaitasuna baino handiagoa duen biltegitratze-instalazioa baimentzen da, baina ez da dirulaguntzarik emango ratio hori gainditzen duen biltegitratze-zatirako. Instalazio fotovoltaikoen kasuan, potentzia kilowattekoa da (kWp).

7.1.3. Tipologiako merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzen dituen jarduera ekonomikorik egiten EZ duten eta izaera publikoa duten onuradunentzako laguntzaren kalkulua

Erakunde publikoei zuzendutako kalkulu-metodo hori jarraitu behar dute soilik administrazioz osatuta dauden energia berriztagarrien erkidegoek edo herritarren energia-erkidegoek.

Kalkulatzeko formula 1.1 ataleko bera da. Jarduketa bakoitzerako laguntza definitzen duten sorkuntza-moduluak honako hauek dira:

Instalazioa potentzia-tarteen arabera	Gehieneko zenbatekoa modulu kolektibo bakoitzeko (€/kW)
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa $P \leq 10$ kW	1.110
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa $P > 10$ kW eta $P \leq 100$ kW	835
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa $P > 100$ kW eta $P \leq 1.000$ kW	720
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa $P > 1.000$ kW	555
Sorkuntzako instalazio eolikoa $P \leq 20$ kW	4.550
Sorkuntzako instalazio eolikoa $P > 20$ kW eta 500 kW arte	3.000
Sorkuntzako instalazio eolikoa $P > 500$ kW	1.275

Aurreko kalkuluaren atalean bezala (1.1), amiantoa kentzea edo ibilgailuak aparkatzeko pergolak jartzea ere diruz lagundu daitekeen zenbateko gehigarria izango da, taula honen arabera:

Diruz lagundu daitezkeen jarduketa osagarriak	Diruz lagundu daitekeen gehieneko kostua [laguntza gehigarria (€/kW) (kasuaren arabera)]
Eguzki-energia fotovoltaikoko proiektuetarako estalkietan amiantoa ezabatzea	$P \leq 10$ kW $\rightarrow$ 200 €/kW 10 kW $< P \leq 100$ kW $\rightarrow$ 160 €/kW 100 kW $< P \leq 1.000$ kW $\rightarrow$ 110 €/kW $P > 1.000$ kW $\rightarrow$ 100 €/kW
Ibilgailuentzako (bizikletak, autoak...) aparkalekuen estalki gisa balio duten markesinak instalatzea eguzki energia fotovoltaikoko proiektuetarako.	$P \leq 10$ kW $\rightarrow$ 400 €/kW 10 kW $< P \leq 100$ kW $\rightarrow$ 350 €/kW 100 kW $< P \leq 1.000$ kW $\rightarrow$ 300 €/kW $P > 1.000$ kW $\rightarrow$ 250 €/kW

Biltegitratze-instalazioetarako laguntzak zenbateko finko unitario edo «modulu» gisa emango dira, eta diruz lagundu daitekeen kostu osoa estaliko dute, gehienez ere.

Nolanahi ere, biltegitratzeko laguntzak ezingo du gainditu benetan egindako jarduketaren biltegitratze-kostu hautagarria, behar bezala justifikatuta.

Instalazioa gaitasun-tarteen arabera	Laguntza-modulua (€/kWh)
Biltegitratzeko instalazioa Kap ≤ 10 kWh	490
Biltegitratzeko instalazioa Kap > 10 kWh eta Kap ≤ 100 kWh	350
Biltegitratzeko instalazioa Kap > 100 kWh eta Kap ≤ 5.000 kWh	245
Biltegitratzeko instalazioa Kap > 5.000 kWh	140

Biltegitratzerako diruz lagundu daitekeen gehieneko zenbatekoa izango da 5 kWh/kW-ri dagokiona. Aipatutako gaitasuna baino handiagoa duen biltegitratze-instalazioa baimentzen da, baina ez da dirulaguntzarik emango ratio hori gainditzen duen biltegitratze-zatirako.

7.2. Energia-iturri berriztagarrien bidez kontsumo termikoak elektrifikatzeko laguntzaren zenbatekoa.

Energia-iturri berriztagarrien bidez kontsumo termikoak elektrifikatzeko laguntzaren zenbatekoa.

7.2.1. Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzen dituen jarduera ekonomikorik egiten EZ duten pertsonentzako laguntzaren kalkulua

Kalkulu-metodo hau jarraitu behar da energia berriztagarrien erkidegoetan edo herriarren energia-erkidegoetan, entitate juridiko horretako kideak soilik bizitokirako etxebizitza baten jabeak direnean (turismoko alokairurako ez erabiltzea).

Laguntzak emango dira banakako zenbateko finko unitario edo «modulu» gisa.

$$\text{Laguntza} = \text{Sorkuntza-modulua} \times P_s$$

Azalpena:

P_s da instalatutako produkzio termikoko potentzia kW-etan. Kontuan hartuz instalazioaren potentziazat hartuko dela UNE-EN 14511 arauaren entsegu jarraikiz fabrikatzailearen fitxa teknikitik edo zehaztapenetatik ateratako berokuntza-potentzia. Berokuntza, hotza eta ur bero sanitarioa hornitzen duten bero-ponpen kasuan, berokuntza-potentzia hartuko da P_s gisa. Aplikazioak soilik hotzerako badira, hozte-potentzia hartuko da potentziazat (P_s); eta gauza bera ur bero sanitariorako bakarrik bada, ur bero sanitarioko ekipoaren potentzia hartuko da. P_s potentzia arau horretan oinarrituta justifikatzea ezinezkoa denean, eskumeneko teknikari batek edo enpresa instalatzaile batek sinatutako txosten bat aurkeztuko da, potentzia hori justifikatzeko.

Nolanahi ere, laguntzak ezin izango du gainditu benetan egindako jarduketaren kostu hautagarria, eranskin honen arabera, behar bezala justifikatuta.

Jarduketa bakoitzerako laguntza definitzen duten moduluak honako hauek dira:

Sorkuntza-jarduketa	Laguntza-modulua (€/kWh)	Gehieneko laguntza (€/etxebizitza)
Klimatizaziorako eta/edo ur bero sanitarioarako instalazio aerotermikoak	500	3.000
Klimatizaziorako eta/edo ur bero sanitarioarako zirkuitu bertikal itxiko instalazio geotermikoak	2.250	13.500
Klimatizaziorako eta/edo ur bero sanitarioarako zirkuitu irekiko instalazio geotermikoak eta hidrotermikoak	1.600	9.000

7.2.2. Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten duten onuradunentzako laguntzaren kalkulua

Kalkulu-metodo hau jarraitu behar dute energia berriztagarrien erkidegoek edo herritarren energia-erkidegoek, baldin eta **gutxienez entitate juridikoko kide batek jarduera ekonomikoren bat egiten badu**.

Diruz lagun daitezkeen guztizko kostuaren gainean aplikatu beharreko intentsitatea zehaztuko da enpresaren tamainaren arabera:

Enpresa-mota	Enpresa handia	Enpresa ertaina	Enpresa txikia
Laguntzaren intentsitatea	%35	%40	%45

Eskaera bakoitzerako laguntzaren kalkulua produkzio termikoko instalazioaren kostu subentzionagarri unitarioan (Ksum) oinarrituta zehaztuko da.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak	Diruz lagundu daitezkeen gehieneko kostu unitarioa (Ksum) (€/kW)
Instalazio aerotermikoak	1.000
Instalazio geotermikoak edo hidrotermikoak	2.000

Produktzio termikoko instalazioaren kostu subentzionario totala honako hau izango da:

$$\text{Kostu subentzionario total maximoa (€)} = K_{\text{sum}} \times P_s$$

Azalpena:

- *K_{sum}: produktzio termikoko instalazioaren kostu subentzionario unitario maximoa.*
- *P_s: instalatutako produktzio termikoko potentzia kW-etan. Kontuan hartuz instalazioaren potentziatzat hartuko dela UNE-EN 14511 arauaren entsegu jarraikiz fabrikatzailearen fitxa teknikoetik edo zehaztapenetatik ateratako berokuntza-potentzia. Berokuntza, hotza eta ur bero sanitarioa hornitzen duten bero-ponpen kasuan, berokuntza-potentzia hartuko da P_s gisa. Aplikazioak soilik hotzerako badira, hozte-potentzia hartuko da potentziatzat (P_s); eta gauza bera ur bero sanitarioarako bakarrik bada, ur bero sanitarioko ekipoaren potentzia hartuko da. P_s potentzia arau horretan oinarrituta justifikatzea ezinezkoa denean, eskumeneko teknikari batek edo enpresa instalatzaile batek sinatutako txosten bat aurkeztuko da, potentzia hori justifikatzeko.*

Nolanahi ere, laguntza kalkulatzeko, aurreko formularen bidez kalkulaturako gehieneko kostu subentzionarioak ezingo du gainditu **B.2 atalaren** arabera egin beharreko jarduketaren kostu hautagarria, behar bezala justifikatuta.

7.2.3. Tipologiako merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzen dituen jardura ekonomikorik egiten ez duten eta izaera publikoa duten onuradunentzako laguntzaren kalkulua

Erakunde publikoei zuzendutako kalkulu-metodo hori jarraitu behar dute soilik administrazioz osatuta dauden energia berriztagarrien erkidegoek edo herritarren energia-erkidegoek.

Guztizko kostu subentzionarioari aplikatu beharreko laguntzaren intentsitatea **kostu subentzionarioaren % 50 izango da**.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak	Diruz lagundu daitezkeen gehieneko kostu unitarioa (K _{sum}) (€/kW)
Instalazio aerotermikoak	1.130
Instalazio geotermikoak edo hidrottermikoak	2.130

Produktzio termikoko instalazioaren kostu subentzionario totala honako hau izango da:

$$\text{Kostu subentzionario total maximoa (€)} = K_{\text{sum}} \times P_s$$

Azalpena:

- *Ksum: produkzio termikoko instalazioaren kostu subentzionagarri unitario maximoa.*
- *Ps: instalatutako produkzio termikoko potentzia kW-etan. Kontuan hartuz instalazioaren potentziatzat hartuko dela UNE-EN 14511 arauaren entsegu jarraikiz fabrikatzailearen fitxa teknikitik edo zehaztapenetatik ateratako berokuntza-potentzia. Berokuntza, hotza eta ur bero sanitarioa hornitzen duten bero-ponpen kasuan, berokuntza-potentzia hartuko da Ps gisa. Aplikazioak soilik hotzerako badira, hozte-potentzia hartuko da potentziatzat (Ps); eta gauza bera ur bero sanitarioako bakarrik bada, ur bero sanitarioko ekipoen potentzia hartuko da. Ps potentzia arau horretan oinarrituta justifikatzea ezinezkoa denean, eskumeneko teknikari batek edo enpresa instalatzaile batek sinatutako txosten bat aurkeztuko da, potentzia hori justifikatzeko.*

8. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Pertsona edo erakunde eskatzaileek, **eskaera-inprimakiarekin batera**, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute eskatzailearen tipologiaren eta jarduketaren arabera gaitutako plataforma elektronikoaren bidez (*Tramitagune* edo Eusko Jaurlaritzaren *Nire Karpeta*). Atal hau *check list* moduan egin da, eskatzaileari beharrezko dokumentazio guztia biltzen laguntzeko.

Nahitaezko dokumentazio orokorra (eskatzaile guztientzat):

- ☐ Laguntza eskatzeko **inprimakia**, behar bezala beteta.
- ☐ **Erantzukizunpeko adierazpena**, sinatuta, honako hauek egiaztatzeko:
 - Eskabidea aurkeztu aurretik proiektua hasi ez izana (pizgarria).
 - Dirulaguntzen onuradun izateko debekurik ez izatea.
 - Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea.
 - Beste laguntza batzuekin batera ez finantzatzea proiektuaren kostuaren % 100 baino gehiago.
- ☐ **Proiektuaren memoria teknikoa**, honako hauek jasoko dituenak:
 - ☐ Jardueraren deskribapen zehatza.
 - ☐ Kontsumo-puntuaren kokapena eta titulartasuna.
 - ☐ Kontsumo elkartuaren justifikazioa (autokontsumorako $\geq$ % 80).
 - ☐ Ekipoen eta instalazioen ezaugarri teknikoak.
 - ☐ Gutxieneko baldintzak betetzearen justifikazioa (SPF errendimendua, araudia, etab.).

- ☐ Gauzatze-plana eta kronograma.
- ☐ Proiektuaren elementu guztien **aurrekontu zehatzak** eta/edo proformako fakturak, banakatuta (bat aurkeztuta nahikoa izango da):
 - Ekipoak, materialak, obra zibila, monitorizazioa, zuzendaritza fakultatiboa, etab.
 - Biltegiatze-kostu bereiziak, hala badagokio.
- ☐ Inbertsioa **finantzatzeko plana** edo finantzaketa-aurreikuspena.

Dokumentazio gehigarria, eskatzaile motaren arabera:

Pertsona fisikoentzat:

- ☐ **NANaren edo AIZren** kopia.
- ☐ Edo, hala badagokio, ordezkariaren egiaztagiria (beste pertsona batek jarduten badu).

Pertsona juridikoentzat:

- ☐ **IFKren** kopia.
- ☐ **Eratze-eskritura eta estatutu** eguneratuak.
- ☐ Legezko ordezkariaren egiaztagiria.

Energia-erkidegoetarako/jabekideen erkidegoetarako:

- ☐ **Erkidegoaren edo taldearen erabakiaren akta**, honako hauek jasotzen dituenak:
 - ☐ Proiektuaren onarpena.
 - ☐ Laguntza-eskaeraren onarpena.
 - ☐ Ordezkariaren izendapena.
- ☐ Erkidegoaren IFZ (baldin badu).

Administrazio publikoentzat/toki-erakundeentzat:

- ☐ Erakundea **ordezkatzeko gaitasuna** egiaztatzea.
- ☐ Edo, hala badagokio, proiektua gauzatuko duen erakundearekin sinatutako hitzarmena, enkargua edo akordioa.

Dokumentazio tekniko gehigarria, justifikazio-faserako (gauzatu ondoren):

- ☐ Jaulkitako fakturak eta ordainagiriak.
- ☐ Instalazio- eta legeztatze-ziurtagiriak (hala badagokio).
- ☐ Egindako jarduketaren argazkiak.
- ☐ Exekuzioaren azken txostena.
- ☐ **Monitorizazio**-tresnarako sarbidea (nahitaezkoa sorkuntza elektrikoko instalazioetan).

☐ EEEk behar bezala gauzatu dela egiaztatzeko eskatzen duen beste edozein dokumentu tekniko.

GARRANTZITSUA! Lehen esan bezala, laguntza-lerro honen izaera pizgarria dela eta, ezin izango da jaso laguntza eman aurretik lanak egiteko sinatutako aurrekonturik. Jasotzen bada, eskabidea zuzenean ezetsiko da.

8.1. Eskaerak aurkezteko edo izapideak egiteko aholku baliagarriak:

- Komeni da **dokumentazio elkarreragingarria** erabiltzea (ziurtagiri elektronikoak), bereziki haien baliozkotasuna iraungi daitekeenean (6 hilabeteko baliozkotasuna). Hona hemen adibide argiak:
 - Gizarte Segurantzza
 - Errolda, egoitza fiskala
 - Ogasuneko ziurtagiriak

Nolanahi ere, behar diren ziurtagiriak edo dokumentazioa ohiko moduan entregatu ahal izango dira. NANarekin ere ez da beharrezkoa elkarreragingarritasun hori.

- Arreta berezia jarri behar da **ogasunaren ziurtagiriak** aurkeztean, errekerimenduak saihesteko. Hona hemen lurralde bakoitzerako izen zuzenak:
 - Araba: "Ogasunarekin egunean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria"
 - Bizkaia: "Ogasunaren ziurtagiri positiboa"
 - Gipuzkoa: "Zerga-betebeharrak: dirulaguntzak"
- Eskatzaileak bakarrik sinatu behar du aurrekontua.
- **II. eranskinetik**, adierazpen guztiak klikatu behar dira Tramitagunen aurrera egin ahal izateko.
- **Errekerimenduak.** Errekerimendu bat egiten bada eta parentesi artean azalpen bat agertzen bada, esan nahi du dokumentu hori eskatu dela, baina aldatu behar dela eskatzen dena zehatz betetzeko. Parentesi artean esaldirik agertzen ez bada, esan nahi du dokumentu bat ez dela aurkeztu.

9. Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Bateragarriak dira administrazio publiko edo pribatuetatik helburu bererako datozen **beste laguntza batzuekin**, betiere errespetatzen badira gastu hautagarriak, gehieneko laguntza...

- **Enpresak (EB 651/2014 Erregelamenduaren arabera):** Proiektu bererako beste laguntza batzuk jaso ditzakete, **kostu desberdinak** estaltzen badituzte edo, kostu berberak estaltzekotan, ez badituzte gainditzen erregelamendu horrek baimentzen dituen **intentsitate-mugak edo gehieneko zenbatekoa**.
- **Beste onuradun batzuk, enpresa ez direnak:** helburu bererako beste laguntza batzuk jaso ditzakete, baldin eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoak **ez badu gainditzen diruz lagundutako jardueraren kostua**.

Nolanahi ere, beste laguntza bat eman bada, EEERi **jakinarazi beharko zaio**.

Gida hau prestatu da dirulaguntza eskatzeko beharrezko dokumentazioaren eta egin beharreko urratsen berri emateko. Datu xehatu guztiak eta aplikatu beharreko araudia EHAA-n argitaratutako deialdi ofizialean daude azalduta. Deialdi horretan zehatz-mehatz azaltzen dira erakunde eskatzaileak dirulaguntzaren onuradun izanez gero bete behar dituen betebeharrak. Dokumentu hau deialdi ofizialaren gida osagarria da.

Dokumentu honen egileak:



Eraldaketa Komunitarioak Bulegoa
Oficina de Transformación Comunitaria
araba  

energia  **BULEGOA**
OFICINA


GIPUZKOAKO ERALDAKETA ENERGETIKOKO BULEGOA
OFICINA DE TRANSFORMACIÓN ENERGÉTICA DE GIPUZKOA



Vitoria-Gasteiz
Eraldaketa Komunitarioak Bulegoa
Oficina de Transformación Comunitaria

 **CERES**

Comunidades Energéticas para el Reto Ecológico y Social



ENERGIAREN PUNTUA
Energia-komunitateen sustapen bulegoa
Oficina de Transformación Comunitaria(OTC)